

# Berbarotarra

**BER  
BARO**  
ELKARTEA

20. alea  
1999ko azaroa

## Berbarok 10 eta H.L.A.-k 10

Eta zer da H.L.A.? Urtero azoka sasoiari Berbarok antolatzen duen Haur Literatur Aretoa. Ziurrenik horrela esanda ere, zuetariko askorentzako ez da askoz gehiago izango, beraz ondorengo berbok, hau argitzeko asmotan doaz.

Milaka lagun batzuk pasatu dira aretotik hasi ginenetik eta aurtun hamargarrenez zabalduko dituzte ateak. Noren erruz? Berbaron sorreratik martxan dagoen irakaskuntza taldeagatik, eta hauen artean batez ere, Marian Bilbatua eta honekin batera lan taldean Arantza Agirre, Mari-bel Gaztelurrutia eta Amaia Ormaetxea.

Zer esanik ez pertsona hauen lana bakarrik ez dela izan eta laguntzaile ugari egon dela eskoletatik eta elkarte mailan, bereziki aipatu beharrekoak Gerediaga Elkartea eta Eskoriatzeko Irakasle eskolako haur mintegia.

Irakurzaletazuna gazteengan duen garrantzia eta Euskal Herri mailan dugun produkzio mamitua ikusita, eskola eta gurasoengana hurbiltzeko lan egin du haur literatura aretoak. Motibazio hori lortzeko, produkzio hori gauzatzen dutenekin, hau da, idazle, ilustratzaile, itzultzaile, ipuin kontalari, eta argitaratzaileekin harreman estuan jarri ditugu ikasleak. Esperientziak urtero jarraipena izan duenez, esan genezake gure helburuak neurri handi baten bete direla.

Helburu hauek aurrera eramateko Durangon urtero Gerediaga Elkarreak antolatzen duen Euskal liburu eta disko azoka izan dugu beti abiapuntu. Durangotik Euskal Herri osora zabaltzen den azoka guretat ere erreferentzi puntua izan da. Inertzia hau aprobetxatu dugu eta gure neurrian azokan bertan txikiendako espazio bat sortzen lagundu nahi izan dugu. Azokak duen egitura eta masifikazioak txikiendako espazio bereiztu eta egoki bat eskatzen zuen eta azkeneko bi urteetan azokan bertan espazio hori sortu dugu Gerediaga-rekin elkarlanean.

Baina hamar urte hauetan gorabehera eta zailtasunak asko izan dira eta hauen artean bereziki finantziarioa. Hasierako urteetan laguntza publikoak zuen pisua finantziarioan, baina azkeneko urteetan horrek aretoa kolokan jarri du eta aretoak ez du aurrera pausu kualitatibo handirik eman. Orain kalitate hori hobetzeko apostu berezia egin dugu eta areto mugikor bat disenatu dugu Durangotik kanpora eramateko. Bi arrazoiengatik, alde batetik egin behar izan diren inbertsioak kubritzeko eta orain arte parte hartu ez duten herriek edo Durangora etortzeko arazoak dituzten eskolak parte hartu dezaten. Beraz, lehenengo pausuak Durangaldean emango ditugu eta gero aukera izanez gero Bizkaiko beste herri batzutaraz zabalduko dugu.

### Ahaztu barik!

Durangoko bertsozaleok zorioneko gara hilabete honetan, 26an Oihane Enbeita eta Jokin Sorozabalen bertsoak afari giroan gozatzeko aukera izango baitugu.

Domeka 28an biharmona etxean pasatzen egon beharrean, zatoz Berbaro tabernara MUGATIK Intxaurrendoko rock taldearen doinu gogorrak entzuterara.

Abenduaren 2an gure artean izango ditugu PIZTIAK taldeko rockero ondarrutarrak, "ZERO" berriaren hirugarren diskoa aurkeztu eta dardara apur bat eragiteko.

### ALE HONETAN

\* 10. Haur literatura aretoa.

\* Euskalgintzaren  
erronka: Jon Sarasua  
eta Iñaki Arrutiren  
hitzaldien sinopsia


\* Iritzia: Joselu Bikandi  
Esti Zurikarai

\* Datozenak

\* Lau berbatan

## tabernaren urteurrena

**A**tzo izan zala dirudi baina badira bost urte. 94ko urrian ekin geun tson lanari ta-



Asier Iturriaga

berna hartzeko abaletan makinatxo bat bazkidek euren sinadura bota eta gero. Pertsiana jaso gendun eguna betiko gogoan eukiko dodala uste dot. Berbarok kanpora begirako aurpegi barri bat erakutsi eban eta bide batez, zelan ez, diru iturri majoa segurtatu eban. Ez naz izen danak emoten hasiko baina ez neukez ahaztu gura hasiera hartan kamarero, pintxogile eta barraz beste aldeko lagun izan zirenak. Dana zan barria eta dana egoan egiteko eta horretan ezin esan leike ni edo beste kamareru baten lana egon zala bakarrik.

Laster ekin geun tson kontzertu eta abarrak antolatzeari be, eta denbora lekuko, ondino be halako programazinoa eskaintzen daben taberna bakarra da Berbaro. Saiatu behintzat egin ginen taberna arrunt bat baino zeozer gehiago izan zeiten gurea eta lortu dogula uste dot. Euskaldunon topaleku izatea genduen helburu nagusi lez eta horretan beharbada badogu ondino be zereginik.

Badira pare bat urte pasa tabernan lan egiteari itxi geuntzola baina tabernak bere bidea egiten jarraitu dau eta ondo gainera. Bihoa lerrotatik agur bat Xabat eta Aitziberrentzat, oraingo kamareroak, eta bide batez azaroaren 18an tabernaren bostgarren urteurreneko ospakizunetarako gonbitea. Laster arte!

# Euskalgintzaren err


**Berbaroren hamargarren urteurrena aitzaki lez hartu egokia zela begitandu zitzaigun. Elkarte barruko talde jendaurreratzeko modu lez proposatu zen «Euskalgin**

Berbaldi hauetan lehenengoa joan den maiatzaren 14an izan zen, Berbaroren Txokoan, eta hizlaria berba bakarrarekin definitzen gatx dagoen Jon Sarasua. Sarasuak bere ohiko estiloari jarraiki hitzaldi kaotiko samarra eskaini zuen ideien ordenari dagokionez, alabaina, iritzi ineteresgarriak jaurti zituen plazara orain arteko berbaldietan jendetsuena izan zen hartan. Euskalgintza beste gauza askorekin lotuta, maila orokor batean ulertzen zuela aipatuz abiarazi zuen berbaldia «*plano artistikoa, soziala eta familiarra, esaterako*» euskalgintzaren barruan kokatu zituen. «*Helburua ez da euskerarekin beste kultura indartsueneren kalkoa egitea, hori ez zait interesatzen, euskerarekin bizi nahi dut nik. Pentsatu, sortu eta irau*».

Euskera biziberritzeko plana ere ahotan izan zuen Sarasuak, «*Kontseiluak, harrigarriki ontzat eman duen plana*» instituzioen apologiatzat jo zuen, era berean gaineratuz «*herri dinamikaren protagonismorik ez dela inondik ere ageri*» plan horretan. «*Alderdi politikoen betiko ikuspegiak boterea hartzerakoan egin daitezkeen planetan oinarritzen dira, ehunekotan, portzentaiaetan*», aretxabaletarra-

ren iritiz euskalgintzaren eta euskeraren geroaren klabea ez dago hor. «*Euskerak zein balio erantsi duen, hori da transmititu behar dena, zein memoria historikorekin, zein sorkuntzarekin lotzen gaituen*».


Berbaldiaren azken aldera agertu zen Euskera Elkartearen gaia. «*Euskera elkartearen ohiko erdua krisian dagoenaren zalantza dut, neure herriko elkartearen ere antzeko buruhausteekin gabiltza. Belaunaldien aldaketarako zailtasun ikaragarriak daude, militantzia eredu klasikoa erretzailea eta une batzuetan masokista ere bada. Militantzia eutsigarria bihurtu behar genuke*». Militantzia eutsigarriaren terminoaren inguruan eztabaida kurioa sortu zen gerora. «*Euskalgintza gizartegintza eta kulturagintza ere bada*». Sarasuaren hitzetan gaur egun hori ondoen formulatu dutenak «*Bilboko Kafe Antzokikoak dira*».



**CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA**

# onkak berbaldi zikloa

egindako ibilbidearen inguruan ausnarketa egiteko une  
an sortzen ari ziren proposamen eta eztabaidak, zelanbait  
aren erronkak» izenarekin aurkeztu zen berbaldi zikloa.



Ekainaren 22an izan zen ziklo honen barruko bigarren hitzaldia eta Iñaki Arruti Lasarteko udaleko euskara teknikaria izan genuen hizlari. Jose M. Sanchez Carrión «Txepetx»-en formulazio teorikoaren haritik, euskararen galera prozesua ulertzeko hainbat argibide eskaini ziren. «Funtzioak galtzeak dakar hizkuntzaren galera» esanez ekin zion, «hizkuntza baten funtzioak zazpitan banatuko ditugu behetik gora: identitate funtzioa, funtzio familiarra, profesionala, nazionala, zibilizazio funtzioa eta funtzio internazionala. Maila nazionaleko eta hortik beherako funtzioak galdu dituen hizkuntzak funtzio defizita du eta normalizatu gabeko hizkuntza da».

Hainbat eragile historiko ezberdin direla kausa, euskararen kasuan gertatu dena hauxe bera dela esan zuen Arrutik. «Honek» segitu zuen, «hiru ondorio zuzen ditu. Euskal hiztunaren gutxiagotasun konplexua, euskal komunitatearen desegituraketa eta gaur egungo funtzioen araberrako lege aldetiko erdipurdiko babesa. Nafarroa eta Iparraldeko egoera hirugarren ondorio zuzen honen adibide garbiak dira».

Euskarak egun bizi duen egoera arriskutsuaren diagnosiaren ostean, normalizaziorako prozesuan egin beharreko urratsek nondik nora jo duten eta jo behar luketen zehaztu zuen. «Egoera hau iraultzeko lehen egin beharra euskararen espazio sinbolikoaren nuklearizazioa da: hizkuntzarentzat garrantzitsuak diren pertsonak, hizkuntzaren diskurtsotik biltzea alegia, euskara elkarteen sorreran eman zen pausua hain zuzen ere» argitu zuen. Bigarren eta hirugarren urratsak hizkuntza komunitatea trinkotzea eta tipo linguistikoak optimizatzea lirategi, «honetan euskara elkarteen motibazio lanak, euskaltegien irakaspen lanak eta euskara teknikarien planifikazioak berebiziko garrantzia dute herri mailan. Baina herri askotan eragile hauetakoa bat edo gehiago falta dira».

Laugarren urrats moduan lege aldetiko babesaren ezinbestekotasuna aipatu zuen, «udalen kasuan honek ez du legeak egitea esan nahi, lanerako baliabideak jarri eta elkarlanerako konpromisoak hartzea baizik» zehaztuz. Arrutiren arabera euskararen normalkuntza bidean eman beharreko pausuetan bosgarrena funtzioen berreskurapena izango litzateke, euskeraz funtzionatuko duten pertsona, talde, enpresak, etab. sortu eta bultzatzea. «Kasu honetan» esan zuen, «herri bakoitzaren errealitatearen araberrakoa izango da lana, Tuteran adibidez ikastola bultzatzea izan liteke garrantzizkoena eta Durangon aisialdia euskaratzea adibidez». Azkenik autokonfidantza, sormen intelektuala eta antzerakoak bultzatu behar lirategi, «konplexuaren kitapena, hain zuzen ere. Honek ez du esan nahi euskalduna naiz eta harroa naiz!, baina bai euskalduna naiz eta harro nago! zentzurik naturalenean» bukatu zuen.

Hurrengo boletinean irakurri ahal izango duzu ziklo honen barruan Teo Etxaburuk eta Jose Jabier Iñigok eskeinitako hitzaldien berri.

## ilusioz

Orain dala hila-bete batzuk, Berbaro Elkarte-ko lehendakari-tza proposatu zidate-nean, lehenengo sorpre-san harrapatu ninduten eta gero beldurra sentitu nuen beste ezer baino gehiago. Pare bat eguneko epea eskatu nuen eta hausnarketa sakon bat egin ondoren (baita lagun batzuen animoak hartu ondoren) baiezkoa ematera ausartu nintzen. Orain lerro hauen bitartez esan nahi dizuet prest nagoela zuek agindutakoak ahal danik eta ondoen betetzeko eta neure laguntza apala emateko, gure elkarte Durangoko euskerazale guztion topagune izan dadin eta oraindik euskaldun izan arren, euskerazale ez direnak laster gure artean izan ditzagun.



Esti Zurikarai

## Larrosa

JAEDI eskeini behar diogu zerbaki honetako larrosa, azkenaldion gauzatu dituzten hainbat ekintzatan euskarari emandako lehenetsunagatik. Ea beste elkarte batzuk adibidea jarraitzen duten.

## Arantzaz

TIRO CON ARCO taldea ziztatu behar dugu oraingoan arantzarekin, udalaren dirulaguntzaz buruturiko lehiaketa iragartzean ez baitute euskara kontuan hartu, udalaren laguntzak horretara derrigortu arren.

# Datozenak

AZAROAREN 1etik 15era, Berbaro tabernan:

Karmele Bilbaoren «**KOLORTERAPIA**» erakusketa

—BER—

AZAROAREN 11an, gaueko 8'30etan, Berbaro tabernan:

**PETTI** Berako kantariaren disko berriaren aurkezpen kontzertua

—RA—

AZAROAREN 9an, gaueko 7'30etan txokoan:

«**EUSKALGINTZAREN ERRONKAK**» hitzaldia Kontseiluako plangintza burua den Jose Jabier Iñigorekin.

—RO—

AZAROAREN 16tik 30era, Berbaro tabernan:

«**FRIDA KAHLO**» margolari mexikarrari buruzko erakusketa

—BER—

AZAROAREN 26an, gaueko 9'30etan Kurutziaga Ikastolan:

**BERTSO AFARIA** Oihane Enbeita eta Jokin Solozabal bertsolariekin.

—RA—

AZAROAREN 28an, gaueko 8etan Berbaro tabernan:

**MUGATIK** Intxaurrendoko Rock taldearen kontzertua.

—RO—

ABENDUAREN 2an, gaueko 8'30etan, Berbaro tabernan:

**PIZTIAK** Ondarruko Rock taldearen kontzertua.

# Lau berbatan

**L**iburu eta disko azoka gainean dugu aurten ere, baina euskararen militantzia literatura hutsa izan ez dadin, zuen laguntza eskatu beharrea gaude tabernan bokadiloak eskeini ahal izateko turnoak eta Gerediaga elkarteari eman beharko zaion laguntza aurrera atera ahal izateko

**D**iseinu munduan euskarak behar duen lekua egin asmoz eta euskaraz lan egingo duten lantaldeak bultzatzeko, Berbaro elkarteak eta Elorrioko Sormen enpresak bat egin dute. Batura honen emaitza itzulpen zerbitzua, irudi korporatiboa eta diseinu grafikoa eskeiniko dituen di-da enpresa berria da.

**D**atorren azaroaren 18an Berbaro tabernaren 5. urteurrena dala eta bazkide guztiok gonbidatuta zaudete bertan egingo den ospakizunera. Gose eta egarri denarentzat ez da faltako tripa zerkin bete eta zintzurra zerekin busti, iluntzeko 8etatik aurrera.



Hona hemen Kurutziagan egin asmo dugun Antzokiaren lanak aurreratzeko derrigorrean eramandako bolondresen neke aurpegiak. Baina ez dezala inork pentsatu alpertuta ibili zirenik, hilabetean eginbeharrekoak aste betean amaitu zituzten-eta.

# berbarotarra

